

# noaua

Zumarteko matrikulazioa,  
azken txanpan

Maialen Berridi, OEIT-ko  
medikua: "Arduraz  
jokatzea eskatzen diegu"

Igandean, giza-katea



## Sagardoaren festarik handiena



# udajolas 2016

Udajolaseko guraso bilera  
**ekainaren 2an** (osteguna)  
izango da **Potxoenean**,  
arratsaldeko **17.00etan**

**nooia**




## BIDAIA TALDEAN

Irteera Lasarte-Oriatik

# ISLANDIA



**aurora borealak**  
- ABENDUAREN 3TIK 8RA -



Erreserbak eta informazioa bulegoan



**NOAO BIDAIAK**  
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea, 10  
20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa  
T. 943 373 613  
info@nooabidaiak.com  
www.nooabidaiak.com

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

**188.000 €** tik

**AZKEN  
ETXEBIZITZAK!**

**12 ETXEBIZITZA**  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi<sub>n</sub>**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)



## Albistea iruditan

# Komun publikoa erabilgarri

**B**ereziki Askatasuna plazako jolas-tokira gerturatu ohi diren haur eta gurasoek eskertuko dute. Baita ospatu berri dugun Sagardo Egun edo antzeko jai egunetara datozenek ere. Honez gero ikusiko zenutenez, Askatasuna plazak komun publikoa du eta erabilgarri jarri du Usurbilgo Udalak. Gerturatu, ikusi, eta behar izanez gero, erabili noski. Bitan zatitua dago gunea; alde batean, 24 orduz zabalik egon eta urarekin automatikoki garbituko diren hiru pixatoki ditu.

### Egunero 8:00etatik 22:00etara zabalik

Beste aldean, ate batekin zabalduko den komuna. Guztiongan pentsatua eta guztiontzat eraikia. Sartu baino lehen, atearen ezker aldean dauden botoiei begiratu, ia zein koloretakoa dagoen piztuta. Botoien bidez jakingo dugu ia komun barruan norbait dagoen edo ez. Edota komuna bera irekita edo itxita egongo den. 8:00-22:00 artean egongo da erabilgarri.

Komun barrura sartzen denak, 15 minutu baino gehiago irauten baditu, atea



Askatasuna plaza ondoan dago komun publikoa.

automatikoki irekitzen da. Barruan, komunaz gain haurren pixohialak aldatzeko lekua dago. Eta bi botoi gorri ditu baita, atea barrutik irekitzeko. Bat lurrortatik metro eta erdira, bestea 40 bat zentimetrotara, lurrera eroriz gero, lu-

rretik botoia sakatu ahal izateko. Komuna erabiltzen den bakoitzean, minutu erdiz edo itxita geratzen da instalakuntza. Automatikoki garbitzen da, hurrena sartzen denak, gunea txukun asko aurki dezan.

## Laburrean

### Elkarretaratzea

Euskal preso eta iheslarien eta haien senideen eskubideen aldeko defentsan, elkarretaratzea deitu dute ostiral honetarako. Maiatzak 27 ostirala, 20:00etan hasita Mikel Laboa plazan.

### Erakusketa Artzabalen

Gregorio Arbeloak bere azken lanak batu eta ikusgai ipini ditu Artzabalen, Gure Pakea Elkarteko jatetxean. Hilabetez egongo dira Arbeloaren margolanak ikusgai.

### Kantu-jira

Larunbat honetan, euskal kantuen zale-tuek hitzordua dute. Hilabetez azken larunbata izanik, kantu-jira arratsaldeko 19:00etan abiatuko da Mikel Laboa plazatik.

# noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus  
Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

#### Banaketa:

Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Aritz Gorriti

## Bidelagunak hautatzeko garaia

**E**torkizuna eraikitzeko nahia, beti da itxaropentsua, bide berriak landu edota zubilana egiteko aukera ederra ematen baitu. Eta hala, "Etorkizuna eraikiz" hasi nahi du legegintzaldi berria Foru Aldundiak. Izen bereko programa aurkeztu du aurrera begirako Gipuzkoa eta gipuzkoarren-tzat. Kontua da, eraikitze bide hau, norekin eta nola jorratu nahi duten.

Iraganari begira jartzea interesgarria izaten da, handik ikasi eta aurrera segitzeko. Baina Diputazioko agintean daudenek, legegintzaldiko lau urtekoan lehena agortze ar den honetan, "lurralde geldialditik" ateratzea lortu dutela diote. Ez atzera ez aurrera egon dela herrialdea euren ustez. Honenbestez ez dagoela zer ikasi askorik, aurreko legegintzaldiko kudeaketaz. "Ataskotik atera gara, baina orain etorkizuna martxan

jartzeko garaia da, epe luzeko estrategia batekin", iragarri dute.

Eta hor sartzen da "Etorkizuna eraikiz" aurkeztu berri duten proiektua. EAJ eta PSE-ren ikuspegitik, Gipuzkoa aurrera begira martxan jarri nahi duena. Bertan behera geratua zegoen erraustegia bezala. Agintera heldu eta presa batean lanean dabilta, Zubietan kokatu asmo duten egitasmoa berrakibatatu eta ahalik eta lehenen lanei ekin nahian.

Antza, "Etorkizuna eraikiz" programaren baitan, telefono bidez egin dituzten 200 inkestetan herritarrek esandakoa entzun entzun dute, beste kontu bat da entzundakoa nola interpretatu duten. Ezagutzera eman dituzten datuen artean, lehentasuneko zat jotzen segiten baitituzte gipuzkoarrek, ingurugiroari loturiko aferak. Hamarretik 8,10eko puntuazioa eman diote inkestetan, kezka iturri den gai honi.

Ekonomia eta enplegua ere ga-

rrantzitsuak diren arren, ingurugiroa zaintzen ez bada, ez badugu osasunik, ez da etorkizunik. Eta hemen dator antza, gipuzkoarrek egiten dioten kritika erakundeei. Lehen aipaturiko telefono bidezko inkestetatik Aldundiak ondorioztatu duenez, "pertsona gehienek uste dute erakundeak ez direla behar beste kezkatzen herritarren etorkizunaz-4,96ko puntuazioa eman diete alor honetan- eta %41,5ek iritzi diote politikariek bereziki etorkizunean pentsatuz landu beharko lituzkeela proiektuak". Are gehiago, "%78en iritzi, erakunde publikoek epe luzeko proiektuak eduki beharko lituzkete esku artean".

Belarria jarri eta benetan gipuzkoarrek diotena entzuteko aukera du Aldundiak igande honetan. Diputazioko leihoak ireki, eta aurrean duten plazara begira dezatela, ordezkatzen ari diren herritarrek diotena entzun eta behingoz, aire garbia sartu dadila, guk arnastu nahi du-

guna kutsatu nahi diguten kudeatzaileen bulegoetara. Igandean gipuzkoarren osasuna aldarrikatzeko aukera izango da, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak Donostian deitu duen giza-katean. Joan den hamarkadan, eskatu dena beste behin ozen oihukatzea; erraustegirik ez dugula nahi ez Zubietan ez inon. Eta herritarrok osasuna behar dugula etorkizuna izateko.

Etorkizuna eraikitzen hasteko orain da Aldundia, bidelagunak aukeratzeko tenorean; ordezkatzen dituzten herritarrek edo interes ekonomikoek begira diren enpresak. Herritarrek aurrez aurre izatea giza-katean, edo elkarlanerako eta alternatibak lantzeko alboan bidelagun izatea. Lerroetatik, txalogarria eta zoriontzekoa Erraustegiaren Aurkako Mugimendua egiten ari den lan bikaina. Maiatzaren 29an, eginiko lanketaren erakustaldia egiteko uea izango da.

Aritz Gorriti | Idoia Torregarai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Imanol Ubeda

## Joseba Larratxeren komikia



# Matrikulazio garaia da Zumarten

Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko epea ostiral honetan amaituko da. Izena ematearekin batera, ordainketa egitea derrigorrezkoa da matrikula osatu ahal izateko.

## 1.- Informazioa jaso

Zumarte Musika Eskolan bertan. Goizez (egunero, astelehena izan ezik), 10:30etik 12:30era. Arratsaldez (egunero) 16:30etik 19:30era.

## 2.- Ordainketa, Kutzabanken

Kutxan ordainketa egin behar da, ondoko kontu zenbakian: 2095 5069 08 1062820021 (Kutzabank). Ordainketa egiterakoan, ikaslearen izena ipini kontzeptu gisa, eta ordainagiria jaso.

Kutxan ordainketak egiteko ordu-tegia: goizez, 8:30-10:30.

## 3.- Ordainagiria Zumarten

entregatu, eta inpresok sinatu



Matrikulazioa osatzeko epea ostiral honetan amaituko da.

Ordainagiria, zuen kontu korrante-ko zenbakia ( 20 digiturekin) eta argazki bat (ikasle berriak bakarrik) Zumarten entregatu eta inpresok sinatu.

Horrez gain, instrumentuko ikasleak hileroko 28 euroko kuota ordaindu beharko dute. Instrumentua ikasten hasten direnen artean, tronboia, saxofoia, tronpeta edo biolina ikasten hasten direnei, nahi izanez gero Zumartek dituen instru-

mentuak urtebetez utziko die.

Hobariak badira familia ugarietan eta hiru senide zuzen edo gehiagoren kasuan.

## Matrikulazio-ordutegia:

Goizez, astelehena ezik: 10:30-12:30. Arratsaldez, egunero: 16:30-19:30.

## Informazioa:

943 371 594. Kale Nagusia, 45. [www.zumarte.org](http://www.zumarte.org)

## Ikastolaren Eguna, ekainaren 4an

Ikastola Eguneko bazkarirako txartelak salgai dituzue jada Udarrégi Ikastolako idazkaritzan; maiatzaren 31ra arte.

15 eurotan helduentzat, 8 eurotan ikasleentzat.

Bi menu prestatuko dituzte antolatzaileek: "Alergia edo intolerantziarik izanez gero, txartela erosteko garaian, ikastolako idazkaritzan jakinarazi, menu berezia prestatzeko".

## Bazkarirako txartelak, Idazkaritzan salgai

■ Helduentzako menua: paella, txerri solomoa ondo saltsarekin, postrea, kafea eta kopa. Edariak eta ogia. Prezioa: 15 euro.

■ Haurrentzako menua: makarroiak tomate eta txorizoarekin, solomoa eta Chips patatak, postrea, edaria eta ogia. Prezioa: 8 euro.

## Ika-mika

# Erraustegirik ez (2)

Otsailan inguruko herrietatik erraustegiaren aurka egindako mendi martxa jendetsua Zubietan amaitu zen eta oholtzan itsatsita zegoen pankartak honela zioen: "1990 amiantoa, 2016 erraustegia".

Esaldiak zer pentsatua eman zidan eta erraustegiak naturan ez ezik pertsonengan eragin ditzakeen gaixotasunez gogoratzean, amiantoaz oroitu nintzen.

Bizitza osoan lantegian lanean jardun eta jubilazio garaia inguratu edo iritsi zarenean gorputzean daukazun gaitza hasten zaizu lanean eta sendabiderik ez dagoenez amiantoak hil egiten zaitu. Nere aldamenean berrogei urte baino gehiago lanean jardun duten lagunei gertatu zaienez, esaten dudanaren ezagutza zuzena dudala esan dezaket. Lanpostuaren inguruan zegoen bero kiskalgarriari aurre egiteko babesgarri bezala ere normaltasunez erabiltzen zen. Ez genekien amiantoa erabiltzea legez galarazia zegoenik. Inork ez zigun ezer esan. Lantegiko lagunari (aurrejubilat

tu eta denbora gutxi iraun zuen) gertatu eta langile guztiok frogak egiten hasi ginen eta horrela jarraitu behar dugu. Komunikabideetan geroz eta gehiago azaltzen zaizkigun (programatutako heriotzak ote?) errealitate gordinak dira.

Zubietan erraustegia eraiki nahi duten PNV-PSE alderdi politikoetako buruzagiek daramaten jokabideak, amiantoarekin guk bizi izan genuen eta bizitzen dugun egoerara narama. Egia da gaitz bakoitzak bere bidea egiten duela edo daramala, egia den bezala, amiantoak bezalaxe erraustegiak ere eragin dezakeen gaixotasunen artean (osasunean adituak diren medikuek esaten dute) antzekotasun handia dagoela.

Guk, ez genekien amiantoak gaitza sortzen zuenik eta inork ez zigun ezer esan. Gaur, erraustegiak eragin ditzakeen gaitzen berri badakigu. OEIT (Osasuna eta Erraustegia Lerketa Taldea) osatzen duten medikuek Europan zehar egindako ikerketa sendo eta sakonak garbi uzten du erraus-

tegiaren inguruan (10 kilometro) bizi garen 272.000 biztanleok jasan ditzakegun gaixotasunak ze motatakoak izan daitezkeen.

Aurreko idatzian (654. NOAUA!) "biztanleok ez al dugu erraustegiak gure osasunean izan dezakeen kalteaz jakiteko eskubiderik" galdetzen nuen. Gaixotasun batek (erraustegiak eragiten dituen lekuko) gorputzean eragin dezakeen kalteen fidagarritasun zientifikoa edukitzea gutxienez, 10 urte itxaron behar dela dakiten eta dakigunean, Gipuzkoako Foru Aldundiak azterketa epidemiologikoak (lehenengoa erraustegia jarri aurretik, bigarrena martxan jarri eta urtea bete aurretik eta hirugarrena handik bost urtera) egingo dituela jakitera eman digu. Garbi utzi nahi dut pertsonaren osasuna hobetzeko egiten diren ikerketak beharrezkoak direla fidagarritasun zintzoz egiten badira.

Erraustegia eraiki nahi duten PNV-PSE alderdiek geroz eta egoera nahaspilatuagoa jartzen digutela

ikusirik adierazi nahi dudana da: Aldundiak egin nahi duen azterketa horren fidagarritasuna zenbaterainokoa den bakoitzak erabaki dezala. Amiantoak gorputzean eragiten duen kalte gordina lantegian ezagutu dudanez, ez diodala, bihotzez, antzeko egoera ezaguterik inori (ezta erraustegiaren alde dauden buruzagiei ere) desio. Erraustegia eraiki nahi duten alderdiak naturaren parte garen pertsonen osasuna babesten duten OEIT taldekoekin bildu (orain artean ez direla bildu entzun dut) daitezela eta ezin dezakegula seme-alaba, iloba, bilobaxoei horren kutsakorra den herentziarik utzi.

Jarrai dezagun gure eta ondorengoen bizimodu jasangarriago eta osasuntsuago baten alde lanean erraustegiaren aurka antolatzen diren ekimenetan parte hartuz.

Erraustegirik ez Zubietan eta ez inon.

\* Orkatz

## EAJk euskal eskola publikoaren aldeko mozioa aurkeztuko du hurrengo plenoan

**E**skola publikoa martxan jartzeko, EAJ alderdiak lurzorua erreserbatzeko lanak abiarazi nahi ditu. Gai honi buruzko mozioa aurkeztuko du, hain zuzen, maiatzaren 31ko plenoan. Segidan duzue mozioaren nondik norakoa.

“Usurbilgo hezkuntza-garapenaren historia ez da, inguruko beste herrietakoekin alderatuz oso ezberdina. Ezagunak zaizkigu Usurbilen izan ditugun eskolen gorabeherak; diktadura aurretik, diktadurapean eta ondoren. Euskal Herriak bizi izan duen historiaren oinordekoak gara hezkuntzaren alorrean ere eta horrek, arrastoak eta ondorioak utzi ditu, baita Usurbilen ere.

Horietako ondorioa izan da, Usurbilen ez dela eskola publikorik izan trantsizioaren ondoren; eskola publikoa bere adiera zorrotzenez erabiltzen badugu behintzat, hau da, Autonomi Erkidegoko administrazioarena eta osorik berak administratua.

Usurbilgo eskola publikoak ez zion Usurbilgo errealtate sozio-linguistikoari erantzun egokia eman, ez zuen D ereduan eskaintza egokirik, eta pixkanaka agortu zen. Gaur egungo egoera aldiz oso ezberdina da.

Herriko bi auzoetan, Aginagan eta Zubietan, administratiboki izaera publikoa duten bi ikastetxe ditugu. Eskola Txiki horietako ikasleek, ordea, ez dute sare publikoan jarraitzeko aukerarik herrian bertan eta bakoitzak berari hobekien datorkion konponbidea aukeratzeko du.



Josune Urkolak eta bere taldeak datorren asteko plenoan aurkeztuko dute mozioa. Argazkia, artxibokoa.

### USURBILGO EAJ-PNV

**“Euskal hezkuntzak sare ezberdinak ditu, eta pentsatzen dugu usurbildarrok sare bat ala beste aukeratzeko aukera izan behar dugula”**

Euskal hezkuntzak hezkuntza sare desberdinak dituen arren, eta guztiak osagarriak diren arren, pentsatzen dugu usurbildarrok sare bat ala beste aukeratzeko aukera izan behar dugula.

2011. urtean egin zen saiakera bat Hezkuntza Sailarekin lokal batzuetako eskola publikoari hasiera emateko eta haren erantzuna izan zen Jaurlaritzak ez zuela aurreikusten zerbitzu hori lokal batzuetan, modu prekarioan ematea. Horrekin batera, Hezkuntza Sailak Udalarri eskatu zion lurzorua erreserbatzeko, aurrerantzean Eskola Publikoa eraikitzeko gure herrian.

Beraz, aurreneko hartu-ema-

nak izan dira eta udalak badu elkarriketa horien berri.

Honengatik guztiagatik, EAJ-PNV udal taldeak honako mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartua izan dadin:

- 1- Eusko Jaurlaritzak eskatutako lurzorua erreserbatzeko dagokion tramiteari ekingo dio Udalak, bertan eskola publikoa egiteko. Idazten ari den Plan Orokorren baitan jasoko da lurzoru erreserba hori.
- 2- Udalak, Hezkuntzako Azpiegitura Planean Usurbilgo eskola publikoaren beharrak jasotzea eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari
- 3- Udalak, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Usurbilen eskola publikoa eraikitzeko behar diren giza eta material baliabideak aurreikusi ditzan, eta gauzatu ahal dadin tramiteei ekin diezaiola.
- 4- Eusko Jaurlaritzari eta Usurbilgo herriari erabaki honen berri emango zaio.

Usurbilgo EAJ-PNV”.

### Negozia hobetzeko tailerra

Euskal Ganberak eta Eusko Jaurlaritzak merkatariei zuzendua, sektorea profesionalizatzea helburu duen tailerra da hau. Usurbilen egingo da, maiatzaren 31n, 14:30-16:30 artean, Potxoeanean: “Berrestreinu zure denda! Irabazi gehiago, negozioaz gozatzu” izenekoa. Gipuzkoako Bazkondeak bideratuko duen tailerlean, “oso modu ikusgarri eta praktikoan, saltokietan hobetzeko alderdiak irakatsiko ditugu; erakusleioa, espazioaren antolaketa, produktuen aurkezpena, irudia, mostradorea, finantza kudeaketa... berehala aplikatu daitezkeenak”.

Doako saio honetan izen emateko eta informazio gehiagorako:

[camaragipuzkoa.com](http://camaragipuzkoa.com)

### Sorospen ikastaroak DYArengo egoitzan

Ostiral honetan, maiatzak 27, lehen sorospenen inguruko ikastaroa. 16:00-18:00 artean, Munalurra 26ko egoitzan. Doan eman dezakezue izena.

Ekainaren 4tik 26ra, al-diz, ur sorospenen inguruko ikastaroa. Ikastaroan parte hartzeko lehen sorospen titulua indarrean izan behar da.

Informazio gehiago: 943 46 46 22 edo irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com helbidean.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

**Parti**  
Patriemba lateleka

· bazkariak EGUNERO  
· afariak. asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

# Galdeketaren antolaketa, herritarren esku

**G**ure aldetik herritarrei itzultzen diegu galdeketa egiteko eskumena. Kezkaren tamaina ezagututa inoiz baino zilegitasun handiago du galdeketak, adierazi du Usurbilgo Udaleko gobernu taldeak, Espainiako Gobernuako Ministroen Kontseiluak duela bi aste erraustegiaren inguruko galdeketa debekatu ondoren.

Udalak herritarren esku utzi du beraz, erraustegiari buruzko galdeketa antolatzeak aukera. Debekua ezagutzera eman eta ia astebetetera, oraindik jakinarazpen ofizialik ez dutela jaso berri eman zuten Xabier Arregi alkateak eta Alaitz Aizpurua zinegotziak. Aste honetarako espero dute, nahiz argi utzi dutenez, Espainiako Gobernuak hartutako erabakia irmoa den. “Maiatzaren 13an argitaratu zuen albistea eta beraz ukoa garbia da”, zioen alkateak, erabaki honen inguruko balorazioa plazaratzeko, aurreko ostegunean udalbatza aretoan egin zuten agerraldian.

Espainiako Gobernuaren erabakia Udalak penaz hartu duela azaldu zuten, “herritarren aldetik 1.185 sinaduraren



“Hondakinak erraustearen egokitasunari buruz inoiz ez zaigu galdetu herritarrei, eta Usurbilen saiatu izan garenean ere ez zaigu utzi”.

## ALKATEA

**“Herritarren aldetik 1.185 sinaduraren mandatuari erantzun ezinik geratu gara”**

mandatuari erantzun ezinik geratzen gara”. Ministroen Kontseiluaren ezezkoak “beste arazo batzuk agerian uzten ditu. Norik noren gainean, zergatik, nola eta zer argudioren gainean hartzen dituen erabakia. Hori Usurbilen esaten den bezala, beste kupeleko sa-

gardoia izan daiteke batzuentzat, baina uste dugu benetan arduraz hartzekoa dela, gehiago erabakiak hartzeko modua eta hauek izan dezaketen eragina herritarrei bizkarra emanda hartzen badira”.

Ildo horretatik, erraustegia ingurumen eta osasunari eragiten dion arazoa izateaz gain, arazo etiko eta demokratikoan bilakatzen ari dela ohartarazi dute. “Hondakinak erraustearen egokitasunari buruz inoiz ez zaigu galdetu herritarrei, eta Usurbilen saiatu izan garenean ere ez zaigu utzi”, salatu du Udalak.

## Herritarrak eta osasuna lehenesteko deia

Debekuak debeku, galdeketon zilegitasuna defendatzen segitzen du Udalak. “Usurbilgo eta eskualdeko herritarren artean erraustegiaren eraikuntza eta hau martxan jartzeak gure ongizatea eta osasunean eragiten duen kaltearen aurrean, zilegizkoa eta arduratsua iruditzen zaigu ekarriko dituen ondorioen eta kostu ekonomikoaren jakitun, oraindik ere gure

hondakinak erraustu nahi ditugun galdetzea”, adierazi dute gobernu taldetik.

Eta galdetu bakarrik ez, behingoz, gai honi buruzko eztabaidaren erdigunean, herritarrak eta herritarren osasuna jarri, eta alderdi interesak alboratzea eskatzen dute. “Osasunaz ari garela, arrisku hutsak aski behar luke arduraren eta prebentzioaren printzi-

pioa aplikatzeko beste ezeren aurretik. Usurbilgo Udalak, ildo horretan, Gipuzkoako eragile politikoei, herritarrei hitza eman eta errausketari buruzko debate zintzo eta zentzuzko bat emateko gonbitea luzatu nahi die, behingoagatik herritarrak eta hauen osasuna eztabaidaren erdigunean jarri eta alderdi interesak alboratuz”, adierazi dute.

## Gizarte eragile askoren aurkakotasuna

Erraustegia eraikitzekeo tematuta segitzen dutenen jarrera ere gaitzetsi dute. “Oso kezkarria iruditzen zaigu erraustegiaren eraikuntza eta geroko kudeaketaren inguruko opakotasuna. Azken asteetan ikusi ahal izan dugun moduan, gutxieneko osasun bermerik izan gabe, herrialdeko gizarte eragile askoren aurkakotasunarekin eta European hainbat erraustegik sortu dituzten arazoei muzin eginez, aurrera jarraitzen dute proiektuarekin”, diote. Nahiz, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak bestelakorik dioen, agerraldian oroitarazi zuten. “Ikerketa asko daude argitaratuta aldizkari serio eta fidagarrietan, erraustegiaren osasun kalteak nabarmentzeko eta ebidentzi mailara eramateko. Gipuzkoako mediku talde batek txosten bat argitaratu du horren berri emateko eta jendaurrean ere hamaika informazio saio egiten ari dira”, nabarmendu dute.

## Galdeketaren bidea

### Udal barruan

■ Urtarrilak 30: Erraustegia Erabakia herri plataformak 1.185 sinadura entregatu zizkion Usurbilgo Udalari, galdeketa antolatzea eskatuz.

■ Otsailak 23: osoko ohiko bilkuran, gehiengo osoz herri galdeketarako galdera onartu zen: “Usurbilgo hondakinak tratatzeko erraustea egoki iruditzen al zaizu?”.

■ Martxoak 4: Usurbilgo Udalak erraustegiari buruzko galdeketa antolatzekeo eskaera luzatu zion Espainiako Gobernuari.

■ Maiatzak 13: Espainiako Gobernuako Ministroen Kontseiluak galdeketa antolatzea debekatu zuen.

# Udako Txokoak Aginagan

Usurbilen eta Zubietan bezala, Aginagan ere udako txokoak antolatu dituzte uda parterako. Ekainaren 23tik 30era, uztailearen 1etik 15era eta uztailearen 18tik 29ra, 3-12 urte arteko haur eta gaztetxoentzat. Txokoak goizez izango dira, astelehenetik ostiralera, 09:00-13:00 artean ludotekan. 10:00ak arte hartuko dituzte haurrak. Txokoetan izen emateko epea zabalik izango da ekainaren 5era arte, aginaga@eskolatxikiak.org helbidean. Prezioa izen-emate kopuruaren araberakoa izango da.

## Udajolasen eta Ziortzan, guraso bilerak

Izen emateak itxita daude jada NOAA! K.E.-k eta



Ekainaren 5ean amaituko da izen-ematea (argazkia, artxibokoa).

Usurbilgo Udalak antolatutako Udajolasen, baita Ziortza Gazte Elkarteak antolaturiko udako kanpaldirako ere.

Aisialdiko bi ekimenoi buruzko argibideak emateko, guraso bilerak deitu dituzte:

### Ekainak 2, osteguna

17:00 Udajolaseko guraso bilerara Sutegiko auditorioan.

### Ekainak 11, larunbata

11:00 Ziortzaren kanpaldirako guraso bilera Potxoenean.

## Oiardo Kiroldegiak egin duen eskaintzan, kirola eta jolasa eskutik

8-13 urte artekoek uztailan kirolaz gozatzeko eskaintza zabala aurkituko dute Kiroldegian antolatu dituzten txokoei esker. Denerariko jardueretan parte hartzeko aukera izango dute, bai Oiardon baita handik kanpo ere. Besteak beste txangoak egitekoak baitira. Beti ere, "eguraldiaren arabera egingo dira" ohartarazi dute antolatzailleek. Kasuotan, "autobusez egingo diren irteerak ez daude prezioen barne".

### Argibide gehiagorako:

943 372 498  
kirola@usurbil.eus  
buruntzaldea.eus  
Facebook: Oiardo Kiroldegia

### Aurreikusitako ekintzak

-Irteerak: mendi bizikleta, ibilaldiak (mendira, hondartzara...).

-Kirol alternatiboak: patinajea, boulderra (hastapen tailerra), badmington, hockey, freesbe.

-Jolasak: altxorren bila, ginkana, globo jolasak...

-Igerilekuko ur jolasak: waterpolo, saltoak, koltxoneta lasterketak, zirkuituak...

-Kirol ekintza ezberdinak: herri kirolak (txingak, sokatira...), pilota (eskuz, raketaz, palaz).

### Txandak

Hilabete osoa: uztaileak 4-29.  
Lehenengo txanda: uztaileak 4-15.  
Bigarren txanda: uztaileak 18-29.  
Ordutegia: 10:00-13:00.  
Nori zuzendua: 8,9,10 eta 11, 12 eta 13 urtekoentzat.  
Antolatzailea: Oiardo Kiroldegia.

## Erlezaintza ikastaroa

Alkartasuna Kooperatibak antolaturiko "Nukleoak egiten ikasi eta biderkatu zure erleak" erlezaintzari buruzko ikastaro teoriko-praktikoaren bigarren saioa larunbat honetan, maiatzaren 28an, 11:00-13:30 artean, Alkartasuna Kooperatiban. Julian Urkiola adituak bideratuko du saioa. Izena emateko: Alkartasuna Kooperatiban: 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com

## "Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak"

Sagarrondotik Sagardora ikastaro zikloko hurrengo saioa, ekainaren 4an, 09:00-13:00 artean Potxoenean, Aitor Etxeandiak bideratuta. Informazio gehiago: 943 361 114 alkartasuna@usurbil.com alkartasuna.eus

## Bertsopaper Lehiaketa

16 urtetik gorako usurbildarrek parte har dezakete Bota Punttubak antolaturiko txapelketan. 8-10 bertso aurkeztu behar dira. "Lanak egilea nor den adierazi dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean parte hartzailearen datu pertsonalak aurkeztuko dira". Lan originalarekin batera, 3 kopia bidali behar dira, ekainaren 8a baino lehen, helbide honetara: Usurbilgo Udala (40. Bertsopaper Lehiaketa), Joxe Martin Sagardia plaza, 20.170 Usurbil.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

# USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

# BORDATXO

taberna

Pintxo Bereziak  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5



# Aginagako Elizaren 50. urtemuga

**M**aiatzaren 1ean ospatu zuten 50. urteurrena. “Meza nagusian, jende ugari bildu zen bertako eta inguruetako herrietatik”. Maria Angeles Arrutik kronika hau idatzi du NOAUA!ko irakurleentzat.

“Maiatzeko loreekin Katekiko haurrek lore eskaintza egin zioten Ama Birjinari, kantu artean. Gero azkenekoz izan diren meza-laguntzaileak Matxin, Arkaitz eta Aitor txirulaz abesti batzuekin alaitzen izan ziren, eta zer esan, gure organo jolea



“Matxin, Arkaitz eta Aitor txirulaz abesti batzuekin alaitzen izan ziren”.

dugun Bittorianoz. Meza erdian omenaldi beroa egin zitzaion,

58 urte dituelako organoa jotzen. Zortzi urte eliza zaharrean

eta beste guztiak eliza berrian. Lehenbizi euskal makila ederra oparitu zitzaion, eta ondoren Matxin eta Aitziber eta Asier anai-arrebek aureskua dantzatu zuten bere aurrean, Xalbatore txistulari zutelarik. Oso ezustean harrapatu zuten Bittoriano, ez baitzekien ezer ere, baina pozik. Meza bukatu eta gero Aginaga Sagardotegian bazkari ederra egin genuen. 85 lagun bildu ginen eta giro ederrean ospatu genuen. Bistan dituzue eguneko argazki batzuk. Lerro hauetatik milesker, parte hartu zuten guztiei”.



Matxin eta Aitziber zein Asier anai-arrebek aureskua dantzatu zuten.



Aureskua Bittorianorentzat ere izan zen. Ezustean harrapatu zuten.

**BIO  
TERRA  
2016**  
13. EDIZIOA

NoaUA!

## GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte dohain)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuen azoka

**Ekainaren 3tik 5era**

- 3 pabiloi tematiko
- Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak
- Osasun eta ongizate jasangarria
- Show Cooking
- Bioterraza, elikagai ekologikoekin
- Zozketak
- Haurrentzako aktibitateak!

EKO esperientzia bizi ezazu!

bioterra.ficoba.org

gonbidapen hau moztu eta azokarekin sarrerari aurkeztu

P

dohainik

Ficobara, zatorz treanean!

(Irun-Ficoba geltokia)

ANTOLATZAILEA

IRUN, GIPUZKOA  
www.ficoba.org

# San Ixidro eguna, iruditan

**B**aserritarren egunean, herriko ekoizleak izan ziren protagonista nagusiak. Denetarik aurkitu zitekeen San Ixidro eguneko azokan: barazkiak, arrautzak eta arrautzetatik eratorritako produktuak, Lumagorri oilaskoa... Bapo jan, erosketak egin, eta garrantzitsuena, herriko ekoizleak eta euren produkzioa ezagutzeko aukera aparta izan genuen.

Jaialdia halere, Saizar Sagar-dotegian abiatu zen, txorien txioak entzunez. Mikel Olano aditua gerturatu zitzaigun bertara. Txorien kantuei buruzko argibideak eskaini ondoren, soinu banda bertatik bertara entzunez gozatzeko aukera izan genuen.



Mikel Olano adituaren eskutik, txorien kantuez gozatzeko aukera paregabea izan zuten argazkian ageri direnek.



Bertsolariek eta trikitilariak alaitu zuten San Ixidro eguna.



Herriko ekoizleek postu bana jartzeko aukera izan zuten.



Erraldoi eta buruhandien kalejira, herriko txistularien erritmoan.



Astigarragako Emarri taldekoak, lanari ekiteko prest.



Heldu! Orioko giza-proba taldekoak, bete-betean.



Aizkoran eta trontzan, binaka aritu ziren lehian.

## KALEFIT USURBILEN



LEHEN SAIOA DOAN!  
ANIMATU ZAITEZ!

**GAITASUN FISIKO GUZTIAK HOBETZEKO  
ENTRENAMENDU-PROGRAMATUAK**

ORDUTEGI AUKERAK  
ASTELEHEN-ASTEAZKEN-OSTIRAL 14:30-15:30  
ASTEARTE-OSTEGUN 20:00-21:00 ETA AUKERA GEHIAGO...

688 610 932  
www.kalefit.com



# Maialen Berridi, OEIT-ko kidea: “Erraustegia geratzeko aukerak baditugu”

**M**aiatzaren 29rako Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak deitu duen giza-katearekin bat egin dutenen artean da Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldea (OEIT). Bertako kide da Maialen Berridi medikua eta osasunaren alde mobilizatzaeraren gonbidatu nahi ditu herritarrek. “Horrelako indarra erakusten bada, erraustegia geldituko dugu”, adierazi dio NOAUA!ri.

**Herriz herri aritu zarete eskuartean dituzuen datuak ezagutarazten. Zer balantze egin dezakezue eskaini dituzuen saioetaz?**

**Maialen Berridi:** Orokorrean oso pozik gaude. Jendearen harrera oso ona izan da, jendeak interes handiarekin hartu gaitu, galderak egon dira, eztabaidatzeko guneak sortu dira, jendea oso pozik eta gustura egon da gurekin, eta gu ere haiekin. Guk ateratako ondorioak plazaratzeko erabaki genuen herriz herri ibiltzea, ikusten baikenuen jendeak ez duela nahikoa informazio gai honen inguruan.

**Hitzaldi hauen aurretik bazen gai honekiko kezka. Sumatu duzue hitzaldiak ematen joan ahala kezka hori areagotu den?**



Maialen Berridi sendagilea, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko (OEIT) kide da.

## MAIALEN BERRIDI

**“Tolosan, Villabonan, Ibarra, Zumaian, Zarautzen, Zestoan... Herri askotan egon gara. Nahiz eta zero gunetik hain gertu ez egon, jendea ardurarekin ikusten da”**

Bai. Hasieran uste genuen ez zela azalduko inor hitzaldietara, baina jendeak interes handia

agertu du hitzaldietara joan denean eta datuak entzuterakoan larritasun handiagoa eragin eta txunditu ditu askotan, ez zutelako espero askotan emaitza edo ondorio horiek aterako ginituenik. Eta kezka nabaria da. Jendea oro har oso kezkatua dago gai honekin.

**Jendea, kezkatuak Erraustetaren zero gunearen bueltan kezka handiagoa dela esan ohi da. Zuek inguruotatik kanpo ere aritu zarete bildutako datuen berri ematen.**

**Kezka hori beste herrietara ere iritsi da?**

Bai, egia esan, ingurune honetatik kanpo dauden herri askotatik deitu digute; egon gara Tolosan, Villabonan, Ibarra, Zumaian, Zarautzen... Zestotatik ere deitu digute. Herri askotan egon gara. Nahiz eta zero gunetik hain gertu ez egon, jendea ardurarekin ikusten da.

**Zuek esandakoetatik, zerk sortzen du kezka edo harridura gehiena?**

Saiatzen dira azaltzen dieguna ulertzen, galdetzen digute ondo azaltzeko zein izango liritekeen erraustegiak dakartzan arriskuak eta gaixotasunak. Askotan egiten duten galdera da, ea hori guztia jakinda ere, zergatik dagoen oraindik halako proiektu bat martxan jartzeko ideia. Erantzun ezinik geratzen gara. Beraiekin ados gaude, ezingo litzatekeela jarraitu aurrera horrelako proiektu batekin, dagoen arriskua ikusita. Susmorik txikiena ere nahikoa iruditzen zaigu, horrelako proiektu bat martxan ez jartzeko. Horregatik, beti diogu arreta eduki behar dela, eta susmoren bat bada, halako proiektu bat gelditu behar dela.

## “Arduraz jokatzeari eskatzen diegu”

**Bilera erronda egin duzue hainbat eragilerek. Zer jaso duzue bertatik?**

Hitzaldiak emateaz gain, udal txer ezberdinekin biltzen hasi ginen. Batzuk nahikoa argi zuten erraustegiaren kontrako jarrera, beste batzuk ez hainbeste; adibidez, Donostian eta Lasarten. Baina arduratuak ikusi ditugu. Gure datuak ain-

tzat hartzekoak direla ikusten dute. Ardura printzipioarena diogunean, hain da oinarritzkoa, edozeinek aplikatu beharko lukeela bere herrian erabakiak hartzerakoan. Ildo beretik, Markel Olanorekin, bai ingurumen arduradunarekin, osasun saileko Darponekin hitz egin nahi genuke, datuen berri izan dezaten. Horretan segiko dugu.

Arduraz jokatzeari eskatzen diegu.

**Erraustegia bultzatzen ari direnak aurrez aurre izanez gero, zein izango litzateke helaraziko zenieketen mezua?**

Argi eta garbi esan datuak existitzen direla, txostenak badaude, eta datuotan behin eta berriro ikusten da, badagoela lotura

erraustegi ondoan bizitzearen eta gaixotasunen artean, eta horren aurrean arduratsu jokatzea behar dela. Arduraren printzipioa aplikatu dezatela, eta ez dezatela biztanleriaren gogoz kontra, 10 edo 20 urte barru osasun arazoak sortuko dituen planta bat ezarri. Arduratsu jokatzea eta beste alternatiba bat bila dezatela.

# “Konturatu dira jendearen osasuna ez dagoela bermatua erraustegi baten inguruan”

**Batzar Nagusietan agertu eta Foru Aldundiarekin biltzea eskatu duzue. Erantzunik jaso duzue?**

**Maialen Berridi:** Zuzenki oraindik ez dugu erantzunik jaso, deialdia egin genuen bai Markel Olanorekin bai ingurumen diputatuarekin, edota Osasun Sailarekin biltzeko. Ez digute erantzun. Astelehenean Batzar Nagusietan agerraldia egin genuen, Podemosek eta EHBilduk eskatuta.

**Erraustegiaren segurtasuna defendatzen du Aldundiak, baina aldi berean Biodonostiarekin azterketa epidemiologikoak egiteko hitzarmena sinatu dute. Nola interpretatzen duzue, itxuraz behintzat kontraesankorra dirudien jarrera hau?**

Guri hasiera batean iruditzen zaigu baikorra, ikusten da benetan konturatu direla, ez dagoela bermatua jendearen osasuna errauste planta baten inguruan. Ez dute nahikoa datu eta arrazoi gaixotasun edo ondorio larriarik sortuko ez denik bermatzeko. Badirudi horretarako sinatu dutela akordio hori Biodonostiarekin. Baina aldi berean ikusten dugu, akordioa berak ere ez duela ezer bermatzen. Antza, arnas aparatuko gaixotasunak bakarrik ikertuko dituzte eta oso epe laburrean.

**Ez da betetzen zuek sarritan aipatu duzuen gutxieneko 10 urteko epea?**

Hori da. Orduan nahiz eta 5 urtez ikertu, eta bakarrik arnas gaixotasuna, minbiziak eta beste malformazioak ez dituzte ikertuko, guk ditugun datuen arabera behintzat. Ez da denbora nahikoa, benetan ondorioak zeintzuk izango diren ikusteko. Eta gehien larritzen gaituena da ez dutela esan zer gertatuko den, benetan ikusiko balute to-



Maiatzaren 29ko giza-katean, “Onkologiko inguruan mediku asko batuko gara, eta osasun arloko langile mordoan”.

## OEIT TALDEA

**“Orain arte ez da azaldu mediku edo ikertzailek benetan baieztatu dezakeena erraustegiak ez duela gaixotasunik sortzen”**

xikotasun maila handiegia izan edo gaixotasunak sortzen ari direla. Eta hori gertatuz gero, zein izango zen erantzulea edo ze erantzun emango luketen. Proiektu bat abiatu dute, emaitzekin zer egingo duten pentsatu edo jakin gabe. Guri iruditzen zaigu, jendea lasaitzeko eta egoera kontrolpean dutela adierazi nahi dutela, baina kontrolak ez du bermatzen erraustegiak toxikotasuna izango ez duenik eta gaixotasunak sortuko ez dituenik.

**Plazaratzen ari zareten datu kezkagarri eta larrien aurreko Aldundiaren erreakzioa izan liteke?**

Bai, ikusi dute benetan datuak daudela esaten dutenak gaixotasunak sortzeko arriskua dagoela eta orduan ez dute beste argudiorik horri kontra egiteko. Eta jendea lasaitzeko aurki-

tu duten modu bakarra, halako zerbait plazaratzea izan da.

**Osakidetzak gai honen inguruan 2004an eginiko azterketa jotzen du balekotzat Aldundiak. Zuentzat ez du kalitate nahikorik. Zeharka bada ere, zuen lana gutxietsi edo balio gabetzeko asmoa dago atzean?**

2004ko azterketa, gure taldeak atera zuen txostenaren ondoren argitaratu zuten. Baina 2004ko txosten hura irakurrita, txosten horrek ez du ezer bermatu eta argitzen. Txostenean bertan onartzen dute, bade-la arrisku maila bat, baina ez dela arrisku nahikoa handia. Deigarria iruditzen zaigu gainera, 2004tik hona ez dutela aurkitu hori esaten duen beste txostenik.

Zabalgabiko txostenak hiru urteko jarraipena du bakarrik. Orduan horrek ere ezin du bermatu edo baieztatu erraustegiak ez duela gaixotasunik sortuko. Guk argi dugu txostenek ez dutela bermatzen gaixotasunik ez dela sortuko. Orain arte ez da azaldu mediku edo ikertzailek benetan baieztatu dezakeena erraustegiak ez duela gaixotasunik sortzen. Ez da agertu eta ez dugu uste agertuko denik.

**“Giza-katearekin bat egin dugu”**

**Maiatzaren 29ko giza-katearekin talde bezala bat egingo duzue?**

Giza-katearen oinarri bat izan da osasunaren alde borrokatzea. Horregatik guk giza-katearekin bat egin dugu eta bertan egongo gara. Ziur aski Onkologiko inguruan bilduko gara mediku asko eta asko, eta osasun langile mordoak. Espero dugu baita herritarrak, familiak, gurasoak, denetarik elkartzeko giza-katea osatzeko. Iruditzen zaigu jende asko gerturatuko dela. Ekimen polita eta garrantzitsua izango da.

**Erraustegia gelditzeko aukerak badira beraz?**

Bai. Batez ere jendeak izan duen erantzunarekin. Horrelako indarra erakusten bada, erraustegia geldituko dugu.

**Erraustegi modernoak ere, arriskutsu**

**Lan askoko hilabeteak izaten ari dira zuentzat, baina lehenetik ere lan handiagoa egin duzue datuak biltzen.**

Hori izan da benetan lan zail eta astunena. 2002-2004 urtean hasi ginen datu bilketarekin. Orain datu bilketa eguneratu dugu, azken 10 urteotan argitaratu denarekin. Bereziki, 90. hamarkadatik hona eraikitako erraustegi modernoak deituri-koak aipatu dituzten txostenak aurkitzen saiatu gara.

Dioxinaren azterketan zentratu gara, toxiko eta minbizi sortzaile handiena delako eta onartuta dagoelako OMS-en eta nazioarte mailan dioxina oso kutsakorra dela. Azken hamarkadako txostenek diotenez, erraustegiok ere ondorioak izan ditzakete osasunean.





[Klik! batean](#)

## Bazkideak, zutarri

Idoia Torregaraik ezin hobeto laburbildu zuen: "Bazkideak dira NOAUA!ko zutarriak". Sagardo Egunaren irekiera ekitaldian, hain zuzen, bazkide egin berri diren bi herritarrekin batera igo zen oholza gainera: Maribel Mena eta Josu Furundarenarekin. Beraiei eta gainontzekoei, aitortzen hori zor diegulako. Lerro hauen bitartez, eskerak eman nahi dizkiegu Sagardo Eguneko antolatzaileei. NOAUA!ren 20. urteurrena lagun askorekin batera ospatzeko aukera paregabea eskaini zigtutelako.

Argazkia: Ion Markel



Sagardo Eguna 2016ko botatzaile lehiaketan, Olatz Arregiren lana saritu zuen epaimahaia. Bigarren geratu zen Ibai Arrizabalaga eta Ibai Gomez hirugarren izan zen. Sagardoa eta gazta eramán zuten opari.



Iaz desegitear egon ondoren, indarberrituta itzuli dira talogileak 35. Sagardo Egunera. Lehengo kideekin eta taldera batu diren lagun berriekin, ez zitzairen lanik falta izan goizean zehar. Ilarak sortu ziren eguerdi partean.





Olatz Lasagabaster, Patxi Uranga eta Xabier Aranburu "Xomorro" herriko presoaren etxeratzea eskatu zuten elkarretaratze bidez. Gero, falta diren herritarren aldeko topa egin zuten sagardo tragoekin, karpa barruan.



Manifesturako atxikimenduak biltzen aritu zen GurasOS taldea. Gogoan izan, gurasos.org atarian sartuta sinatu dezakezuela manifestua. Sagardo Eguna abiatu berrikan, erraustegiaren aurkako adierazpen bat irakurri zen oholtza gainean.

# Udarregi eta Remigio Mendiburu gogoan

Sagardo Eguna 2016 ospakizunari hasiera eman baino lehen, Udarregi bertsolariaren eta Remigio Mendiburu eskultorearen omenezko ekitaldia egin zen frontoian.

50 urte bete dira bertsolariaren omenez eskultoreak eginiko artelana ipini zutenetik. Bi artisten lanak eta duela 50 urte antolatu ziren kultur jardunaldi haiek ekarri zituzten gogora Jakoba Errekondok eta Xabier Arregi alkateak. Azalpenak noaua.eus web orrian ipini ditugun bideoetan entzun ditzakezue osorik.

## Plaka berri bat ipini diote eskulturari

Bide batez, eskulturari plaka bat ipini diotela iragarri zuen alkateak. Izan ere, orain arte ez zen eskulturaren egilea inon aipatzen.

Iñaki Almandoz Joxe Txiki zenaren birbilobak zabaldu zuen ekitaldia. Remigio Mendibururen senideak ere bertaratu ziren eta Sagardo Eguneko oroigarriak eman zitzaizkien oparitan.

## Ikusleen artean, Zumeta eta Tapia

Dantzariak, txistulariak eta txalapartariak girotu zuten ekitaldia eta Kerman Errekondok Udarregiren bertso batzuk abestu zituen. Ikusleen artean ziren Jose Luis Zumeta eta Alejandro Tapia margolaria.

Ekitaldiaren ondoren, NOAUA!ren urteurreneko argazkira abiatu ziren omenaldian batutako asko.

## Udarregiren omenezko ereserkia

Iñaki Almandoz eta Nieves Arambururen eskutik, Udarregiren omenezko ereserkiaren kopia bat jaso dugu. Joxe Mari Izetarenak dira hitzak, Miguel Angel Garcarena doinua. Hurrengo batean emango dugu honen berri gehiago.



## 20 urtez, NOAUA!ri arnasa ematen



1996an abiatu zen NOAUA! Orduko Sagardo Egunean bazkietza kanpaina abiarazi zuten eta argazki bat atera zuten Potxoenea ondoan. 20 urteren ondoren, eta sortzaile izan ziren haien omenez, argazki berri batera deitu genituen bazkideak eta irakurleak. Eskerrik asko bertaratu zineten guztioi! Argazkia: Ion Markel.

# BAZKIDEEEN TXOKOA

**ASTE HONETAN...NOAUAKO  
bazkide guztien artean  
zoketatuko dugun SARIA...**

+

**2 LAGUNENTZAKO  
ZIRKUITU TERMALA ORIOKO AISIAN**

## noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara. Opari eder bat jasoko duzu eta zoketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / eukartea@noaua.eus

# Gaztetxoen sorkuntza lanak Sutegin ikusgai

Ikasturte amaiera ate joka dugun honetan, balantzeetarako eta eginiko lanetarako jendarteratzeko garaia da talde askorentzat. Tartean, Hitz Aho Udaregi Ikastolako Guraso Elkarteak antolatuta, azken hilabeteotan Potxoenean bideratu duten komikigintza tailerrekoena. Datorren astean erakusketa zabalduko dute Sutegin.

Ekainaren 4an ospatuko den Ikastola Egunaren harira, Joseba Larratxe marrazkigilearen ikastaroan LH eta DBHko ikasleek eginiko sortze lanak Sutegin jarriko dituzte ikusgai. Ekainaren 2an, 18:30ean inauguratuko dute erakusketa.



Joseba Larratxe marrazkilariarekin batera, komikigintza tailerrean hartu dute parte azken hiru hilabeteetan.

## Ekitaldi ugari Ikastola Egunaren bezperan

### Maiatzak 26, osteguna

■ 18:00 Udaregi Ikastolako bazkideen ohiko batzarra Sutegiko auditorioan. 18:00etan lehen deialdia, 18:30ean bigarren deialdia.

### Maiatzak 30, astelehena

■ 17:00 Ikasleen bertso jaialdia, Udaregi Ikastolako Erdiko aretoa: LH 5. eta 6. mailako ikasleen bertso saioa. "Ikasturtero, Ahozkotasuna eta Bertsolaritza Programaren barruan Bertso jaialdia eskaintzen dute LHko 5. eta 6. mailako ikasleek. Bikaina izaten da! Zatoz!".

### Ekainak 1, asteazkena

■ 18:30 HH5 eta LH5 mailako ikasleen kantaldia Sutegiko au-

ditorioa.

■ Nori zuzendua: ikasleen familiei.

■ Oharra: sarrera mugatua, lekuaren edukieragatik.

### Ekainak 2, osteguna

■ 17:00 Solasaldia: "EKI proiektua DBH-n. Zer dakigu proiektuaz? Zer ikasi nahi dugu? Zeintzuk galdera ditugu?".

■ Hizlariak: Abel Ariznabarreta, Ikastolen Elkarte Zuzendari Pedagogikoa eta Mikele Aldasoro EKI Proiektuaren arduraduna.

■ 18:30 Komiki erakusketaren inaugurazioa, Sutegiko erakusketa aretoan.

■ Zehaztasunak: "Komiki erakusketaren inaugurazioa.

Lanak aste osoan zehar ikusgai izango dira. Artistak, solaskide izango ditugu bertan".

### Ekainak 3-6, ostiraletik astelehenera

■ Haur Eskolako erakusketa, Oiardo Kiroldagiko harrera tokian.

### Ekainak 3, ostirala

■ 17:00 Antzezlanaren Potxoena atzealdeko anfiteatroan: "Taberna", Bapatean Zirko taldearen eskutik. Oharra: euria egin-go balu, Askatasuna plazan.

■ 18:00 Txokolate jana eta buruhandi txikien festa Askatasuna plazan. Oharra: etxean buruhandia duenak, ekar dezala.

### Ekainak 4 larunbata

■ 09:00-12:00 LH eta DBHko ikasleen jokoak.

■ 10:00 Esnadeia.

■ 10:30-13:00 LH eta DBHko ikasleen eskulan eta teknologia lan erakusketa, Udaregi Ikastolako eraikin gorrian.

■ 12:00 HH-koen jaialdia Oiardo Kiroldagian.

■ 14:00 Herri bazkaria. Txartelak salgai maiatzaren 31ra arte, Ikastolako idazkaritzan; 15 eurotan helduentzat, 8 eurotan ikasleentzat. "Alergia edo intolerantziarik izanez gero, txartela erosteko garaian ikastolako idazkaritzan jakinarazi, menu berezia prestatzeko".



# Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

# USURBIL AUTOAK

· TAILERRA · KARROZERIA · KOTXEEN SALMENTA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala

Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

# Ingemarren etorkizuna, kinka larrian

**E**goera delikatua bizi dute berriz Atalluko plantan. Enplegu Erregulazio Espediente (EEE) berri baten atarian dira. Astelehenean langileen batzordeak eta enpresa zuzendaritzak egin zuten batzarrean, mahai gainean jarri zuten 6 hilabetez langileak etxera bidaltzeko erabakia. 15 eguneko kontsultetarako epea zabalduko da orain. Gutxienez bi bilera dituzte hitzartuta langileek enpresako zuzendaritzarekin. Ia zer ematen duten saiook. Zer gertatuko den ikusteke dago. Baina langileen batzordeak argi du, ekainaren 6an enpresako zuzendaritzaren esku egongo dela EEEa aplikatzea. Hala egingo balu, urte erdiz lanik gabe geratuko liriteke, egun bertan diharduten 77 bat langile.

Zoritxarrez, ez da Atalluko plantako langileek halako egoerarik sufritu behar izan duten lehen aldia. Azken urteotan enpresa norabide argi bat hartzen ari dela salatzen dute langileek; Ingemar deslokalizatu nahi dute. “Deslokalizazio prozesu baten aurrean gaude”, adierazi digute langileen batzordetik.

## Galiziako plantaren alde ari da enpresa

Galizian duten plantaren aldeko apustua egiten ari omen dira jabeak. Azaldu digutenez, orain arte aldi baterako lan enpresen bidez kontratatuak zeuden 30 langile baino gehiagori enpresak kontratua sina-



Egun Ingemarren lanean diren 77 langileak urte erdiz lanik gabe geratzeko arriskuan dira.

## DESLOKALIZAZIO ARRISKUA

**Zoritxarrez, ez da Atalluko plantako langileek halako egoerarik sufritu behar izan duten lehen aldia. “Deslokalizazio prozesu baten aurrean gaude”, adierazi digute langileen batzordetik**

tu eta plantillan sartu dituzte. Asteburu eta jai egunetan ere lanean aritzen omen dira. Lan karga handia dute Galizian. Usurbilgo plantan aldiz, oso lan gutxi langileen batzordetik NOAUA!ri aditzera eman diotenez. Horregatik, lan karga banatzea, eta Galiziatik Usur-

bilgo plantara lan karga handiagoa ekartzea eskatzen dute, “han egiten duten lana hemen egin daiteke” eta.

## Talde osoaren egoera “oso larria” da

Usurbilgo plantarena bakarrik ez, Ingemar talde osoaren egoera “oso larria” da une honetan. Etorkizuna kolokan du Ingemarrek. Momentu honetan, taldea sortu zuen Atalluko planta da kinka larrian dagoena. Datozen asteotan ikusi behar zer norabide hartzen duen egoerak.

Langileek ondoko irudian ikusi ditzakezuen pankartak jarri dituzte lantegi atarian, beste behin bizitzen ari diren egoera gogorra salatuzko.

## “Ikimilikiliklik”

### erakusketa Potxoenean

Sagardo Egunez, Udaregi bertsolarien omeneko eskulturaren 50. urtemugako oroitze ekitaldian iragarri zuen Usurbilgo alkateak. Ekaina hasieran Potxoenean datorrela, “Ikimilikiliklik, J.A. Artzeren unibertsoa” erakusketa. “Instalazio honen helburua ikusleari Artzeren unibertso poetikoan zehar zentzumenek gidatutako bidaia egiteko proposamena egitea da. Soinua eta irudiaren bitartez, bere memorian gordeko duen esperientzia”. Ekainaren 3rako iragarri du Usurbilgo Udalak irekiera ekitaldia, 19:00etan Potxoenean.



# Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

# USURBIL AUTOAK

· TAILERRA · KARROZERIA · KOTXEEN SALMENTA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala

Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

## Izen-ematea Usurbil Cup-en

Iaz kilometroak jaialdia zela eta, ekainera aurreratu bazuten ere, aurtengo ediziotik hasita, Usurbil Cup ekimena etorkizunean irailean antolatzeko asmoa du Usurbil F.T.-k. Datorren ediziorako izen ematea zabalik dago jada.

### Ekainaren 3ra arte

Ekainaren 3ra arte Oiardo Kiroldegian eskuratu ahal izango dituzue izen emate orriak. Gero, orriok, "diru sarreraren ziurtagiriarekin, Kiroldegian utzi beharko dira, ekainaren 3a baino lehen".

Aurten Lehen Hezkuntzako lehen mailan ikasten ari denetik hasi, DBH 2an dabilzangana dago zuzendua kirol



LHko lehen mailatik hasi eta DBH2 maila bitarteko ikasleei zuzendua dago.

ekimena.

Inskripzio epea igarota zabalduko omen dute informazio gehiago. "Animatu Usurbil Cup 16an parte hartzera", deitu dute Usurbil F.T.-tik.

### Zumba festa kiroldegian

Ekainak 4 larunbata, Zumba Festa Kiroldegian: 16:00etatik 18:00etara, Lorena (Zarautz), Betisa (Usurbil) eta Jhonson Josune - Garazi (Zumaia).

## Gipuzkoako infantil mailako txapelketa Oiardo kiroldegian jokatu zen



Infantil mutil zein nesken Gipuzkoako Eskubaloi Txapelketako finalak Oiardo Kiroldegian jokatu dira aurten. Usurbildarrik ez zen amaiera fase honetan. Bi txapelketetan, zumaiarrak nagusitu ziren; Pulpo eskubaloi taldeko neska-mutilak. Pozik asko jaso zuten kopa eta ospatu garaipena ere.



Alebin mutilak, Gipuzkoako final laurdenetan Udarregi taldeak Ordizian jokatu du larunbatean 10:00etan. "Han irabaziz gero, finalerdiak Urnietan izango dira ekainaren 11n eta finalak ere bertan, ekainaren 12an", ohartarazi digute. Alebin nesken final laurdenak ere asteburu honetan jokatu dira, baina Usurbilen.

### "Nordic Walking" edo Ipar Martxa

Bigarrenez Oiardo Kiroldegiak antolatu du saioa, ostiral honetarako, maiatzaren 27rako 17:00-20:00 artean. "Ibiltzeko eta kirola egiteko beste era bat. Bi makilen laguntzaz egiten da, "alfa" izeneko teknika erabiliz, erritmoa du eta gorputzeko hainbat atal lantzen dira". Ikastarorako izena, Oiardo Kiroldegian eman beharko da. Prezioa: 15 euro bazkideek, 30 euro bazkide ez direnek. Makilak 5 eurotan alokatuko dira. Argibide gehiagorako: 943 372 498.

### Udako kirol eskaintza

Uztailerako ikastaro berriak programatu ditu Oiardo Kiroldegiak. Igerilekuan, haur eta helduei zuzenduriko hastapen ikastaroak; pilates, spinning, yoga, zumba, aerobik edota jumping ikastaroak gimnasioan. "Uztailean kirol egin nahi? Zatoz Oiardo Kiroldegira eta apunta zaitzete gure uztaileko eskaintza berezian! Zure zain gaude!", luzatu dute gonbita Kiroldegitik.

### KzGuneko ikastaroak

- Ekainak 1-14, 09:00-11:00 "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi".
  - Ekainak 15-28, 09:00-11:00 "Ofimatika tresnak-LibreOffice".
- Informazio gehiago: 943 023 684 / tutor.usurbil@kzgunea.net edo kzgunea.eus

**Otar-Goxo**  
Elizkarguak  
Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8  
☎ 943 370 008

**Josue**  
Igeltseritza  
☎ 606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

# Lizarrusti-Larraitz mendi irteera, ekainaren 12an

Zabalik du Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak, ekainaren 12rako antolatu duen mendi irteerarako izen ematea. Ekainaren 8a baino lehen apuntatu behar dute, Lizarrusti-Larraitz 19 kilometroko bidea osatu nahi duten lagunek. Datorren txangoari buruzko zehaztasun gehiago dituzue segidan:

- Eguna: ekainak 12, igandea.
- Abiatzeko hitzordua: 07:00etan Oiardo Kiroldegitik.
- Joan etorria: autobusez.
- Ibilbidea: 19 km. "Usurbildik Lizarrustira autobusez abiatuko gara, Aralarko Ganbo mendia igo eta Txindokiren albotik Larraitzera joateko".
- Izen ematea: 10 euroko ordainketa egin behar da ekainaren 8a baino lehen, kontu zenbakiotako batean: RURAL KUTXA:30080259163005430321. KUTXABANK: 20955069071068489805.
- Oharrak: -Plaza mugatuak.



Senpereko irteeran, Andatzako hainbat kide. Argazkia: Mikel Zubelzu.

-Otordua, ibilbidea amaitu-takoan egingo da.  
-Janaria norberak eraman behar du, edaria antolatzailleek.  
-Irteeran parte hartzeko derri-gorrezkoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. "Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Komeni da ahalik eta azkarren egitea".

■ Informazio gehiago: [andatzamendizale.info](http://andatzamendizale.info)

## Pagazpe 2-1 aurreratu da Herri Arteko Txapelketan

Pagazpek ondo hasi du Herri Arteko Pilota Txapelketa. Joan den ostiralean 2-1 irabazi zuen Lazkaoren aurka. Horiek baina, joaneko partidak izan ziren.

## Ostiral honetan, frontoian

Datorren ostiralean, maiatzak 27, arratsaldeko 19:00etan itzuliko partidak jokatu dira Usurbilgo pilotalekuan.

## Ostiral honetan, Agirretxe Taldearen

### 5. urtemuga festa

Maiatzak 27, ostirala

- 19:00 Herri poteoa Aitzagatik abiatuta.
- 21:30 Afaria Saizarren. Txartelak salgai aurrez, Aitzaga eta Irrati tabernetan. Antolatzaila: Agirretxe Taldea.

## Usurbil KE, zozketa

7.030 izan da zenbaki saritua elkarte laguntzeko egin den azken zozketan. Lerrootatik eskerrak eman nahi dizkiete errifak erosiz eskubaloi elkarte lagundu duten guztiei.

## Eskubaloi partidak

Maiatzak 28 larunbata

Alebin neskak, Gipuzkoako final laurdenak:

- 10:00 La Salle 6 (Andoain)-La Salle 6B (Donostia)
- 10:00 Txispak (Zumaia)-Ikastola 6A (Elgoibar)
- 11:15 Txantxiku 6B (Oñati)-Oretera A (Errenteria)
- 11:15 Samaniego A (Tolosa)-Murumendi (Beasain)
- 12:45 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Tolosa C.F. Eskubaloia A
- 15:30 Alebin neska-mutilak, Gipuzkoako Errendimenduko Txapelketa: prestatuntza saioa.

Maiatzak 29, igandea

- 11:00 Infantil nesken Gipuzkoako Selekzioaren entrenamendua Oiardo Kiroldegian.

## Pilota partidak

Maiatzak 28 larunbata

Usurbilen, 11:30ean  
Nagusiak 1. maila  
Ojuel-Aizpitarte (Hernani)  
Azketa -Atxa (Zegama)

Urretabizkaia-Telletxea (Bidegoien)  
Mazkiaran-Gofi (Huarte)

Maiatzak 29 igandea

Usurbilen, 11:00etan  
Nagusiak 1. maila  
E. Labaka-Arratibel (Bidegoien)  
Maiz-Beloki (Billabona)

Azpiri-Zabala (Elorrio)  
Apezetxea-Labaka (Hernani)

Nagusiak 2. maila  
Etxezarreta-Gesalaga (Andoain)  
Artetxe-Katalina (Lasarte)

# Senior nesken maila igoera, berretsia

Zilarrezko Ohorezko Mailara igo ziren mailatzairen 15ean Usurbil K.E.-ko senior neskek, Castro Urdialesen jokatu zuten fasearen amaieran. Taldearen maila igoera berretsia du orain, Espainiako Eskubaloi Federazioak. Ez bakarrik usurbildarrena, baita duela bi aste ospatu ziren sektoreetan mailaz igotzea lortu duten gainerako 7 taldeen ere.

Haietatik seik txapeldun amaitu zituzten faseok. Taldeok: San Sebastian de los Reyes, Castro Urdiales, H. Sant Vicenç, A.M. Cargo Canyamelar C.H. Benetusser, CD. Agustinos eta C.B. Morro Ja-



Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatzeke eskubidea irabazi dute.

ble V.C. Eta haiekin, bigarren bi talde onenak ere mailaz igo direla berretsia du aipatu federazioak; HV Aceitunas Olibher eta Usurbil K.E. Zorionak neskek!

## Eskubaloia, selekzioa

Maiatzak 29, igandea

11:00 Jubenil mutilen Gipuzkoako selekzioa Zumarragan batuko da. Jokin Azpeitia deitu dute entrenatzera.

## ETXEBIZITZA

## Salgai

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela handi, 2 komun, saloi handia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

Pisua salgai Munalurran, guztiz berriua, 60 metro, 140.000 euro. Tf: 636393237

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m<sup>2</sup>. Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Dena kanporaldera. Prezioa 150.000 euro. Ramón 615149900.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldea jantokia aparte duela. 605 707 642.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunaren ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisu baxua. Berriua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Inaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonomoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdik 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan: 64 metro karratu. Dena kanporaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

## Alokairuan

2 logela alokatzen ditut 300 eurorotan Wifi-a doan. 681 393 183.

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

Alokairuko pisu baten bila nabil, bi gelakoa 500-650 euro artean, edo hiru gelakoa 550-700 euro artean. 632129182 Claudio

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekien eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta merke. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila

dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxerentzat. 60.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairu batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motozko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607

333 966.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Zerbitzari euskaldun bat behar da esperientziarekin. Interesatuok idatzi email bat: atxega@atxegajuregia.com

Estetizista bat behar da ilea-paindegi batean lan egiteko. 943361971

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. Tel. 631 224 621 Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxe etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketan. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakume eskaintzen da haurrek zain-tzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldean, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrek arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrek zaintzen eta udalekue-tan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)



**Zorionak Olatz!** Aurten Sagardo Eguna probestu dugu zure urtebetetzea ahalik eta hoberen igaro dezazun opartzeko. Txanpainaren ordezkari sagardoekin, jakina! Kupelak muxu zuretzat!



## Urte askoan Lur!

Ekainaren 1ean 5 urte beteko dituzu eta primeran pasako dugu! Muxu handi-handi bat familia osoaren partez.



## Zorionak!

Gure etxeko sorginak maiztaren 26an 7 urte beteko ditu. Zorionak Oihane! Gozatu zure eguna! Muxu handi bat etxeko guztien partez!



## Zorionak Peru piratarri!

Maiatzaren 25ean 5 urte bete dituzte. Muxu handi bat Eire, Aitatz eta Amatzoren partez.

## Heriotzak

**Ignacio Odriozola Garayalde**  
81 urterekin hil zen maiatzaren 19an Aginagan





Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jabetxe- ren batean harraskako garbiketak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan ari- tzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldian, garbiket- tan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Or- duka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferen- tziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Or- duka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferen- tziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mu- tilla, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen espe- rientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia asko- rekin. Gomendio askorekin. 638

602 597.

Neska bat eskaintzen da, hel- duak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 ur- teko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plan- txatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat es- kaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoi- tzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbi-

keta egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, errefe- rentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lan- ak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona hel- duekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua- rekin 688826968.

#### BESTELAKOAK

Agapurri urdin bat aurkitu ge- nuen frontoian, maiatzaren 12an. Zurea bada, deitu 609 413 883 telefono zenbakira.

Katuak oparitzen ditugu Donos- tikit elkartearen. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro po- lar bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Quechua markako eta kolore arrosoko anorak bat galdu da. 678 084 020.

Okly markako eguzkitako be- taurreko graduatu eta beltzak galdu ditut, Aginagako Mapil-en dagoen bankuaren ondoan. Aur- kitu badituzu deitu 649 403 890

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztailearen 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Gazteentzako logela bat, berria eta argia. Umeentzat "Maxico- si-a" handia 9 - 15 kilo, jolastoki bat, hamaka bat eta bidaiatzeko sehaska bat. 673 256 566.

Mahaspildegi elkartearen plaza

bat salgai. Tel. 608 772 013.

NOAUA!ren aurrean domina bat aurkitu da. Galdu baduzu NOAUA!tik pasa. Dominan Dipu- tacion de Ciudad Real jartzen du.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Artzai txakur bat oparituko nuke. Baserri edo pabeloia zaintzeko ona da. Bost urte ditu eta beltza da. Txerto eta mi- kro-txipa jarrita ditu. 943 365 228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean mobil home bat saltzen da. 656 791 676.

Kalexarren, azpiko kaleko gara- jeetan, katu txuri, marroia eta urre kolorekoa desagertu zaigu. 2015eko iraillean jaioa. Norbai- tek aurkitzen badu deitu: 943 371 220

Egurrarekin sua egiteko eko- nomika berria daukagu salgai. 637974994

Borda baten bila gabiltza Usur- bil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kilo. 657 714 355

Haur-sila bat salgai. "Bebe con- fort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako so- fak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@ hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure mas- kota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. As- teburutan. 688 888 176. Pablo.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, pati- neteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehe- netik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00- 13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 26** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 27** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 28** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 29** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Astelehena 30** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteartea 31** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteazkena 01** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

## Maiatzak 26 - ekainak 05

**Osteguna 02** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 03** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Larunbata 04** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 05** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** URRUTIA YURREBASO, MAITANE Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani 943 55 77 38 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak** [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda maiatza

## 27 ostirala

- **Hitzaldia: lehen sorospenak** 16:00etan DYako egoitzan.
- **Udaberri Festa Zubietan.** 17:00etatik aurrera antzerkiak, jokoak, eta afari merienda.
- **Azken ostiraleko elkarretaratzea** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

## 28 larunbata

- **Erlezaintza ikastaroa** 11:00etan Alkartasuna Kooperatiban.
- **Bokashi tailerra** 11:00etan gaztetxean.
- **Muxurbil Antzerki Taldearen emanaldia** 12:00etan Sutegin.
- **Kantu-jira** 19:00etan Mikel Laboa plazan.

## 29 igandea

- **Osasunaren aldeko eta erraustegiaren aurkako giza-katea**, 11:30ean Donostian. Izena emateko aukera: maiatzak 27 ostirala, 17:00-20:00 Zubietako plazan, maiatzak 28 larunbata 12:30ean Sutegi ondoan.

## Osasunaren aldeko giza-katea

**H**eldu da azken hilabeteen astero gogorarazi dizuegun moduan, "osasunaren alde eta erraustegiaren aurka gipuzkoarrak elkartu, elkarri eskua eman eta Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak antolaturiko giza-katera lotzeko unea". Donostiako Onkologikoa eta Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza lotuko ditu igande honetarako iragarria dagoen ekimenak.

9 eremutan banatuko da katea, eskualde edota udalerrika. Usurbildar eta zubietarrek 8 eta 9 guneetara gerturatu behar dute; Londres Hoteletik Gipuzkoa plazarako tartera, goizeko 11:30erako. Txartela eskuratu duzuenok, ondo begiratu. Txartelean adierazia datorkizue eta, zer eremutara gerturatu behar duzuen:

- 8. gunea: Londres Hotela-Bulebarreko kioskoa: Astigarraga eta Usurbil.
- 9. gunea: Bulebarreko kioskoa-Gipuzkoa plaza (400m): Usurbil eta Zubietan.

### Maiatzak 29, igandea

- 11:30 Osasunaren aldeko eta erraustegiaren aurkako giza-katea Donostian, Onkologikoan hasi eta Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza pareraino.
- Luzeera: 5 kilometro inguru.
- Beharrezko parte hartzea: 5.000 lagun.
- Zehaztasunak: "musika, emozioa eta sorpresak" iragarri dituzte.



**Giza-katea igandean egingo da, Onkologikotik Gipuzkoa Plazara. Izena eman behar da alde z aurretik.**

- 13:00 Ekitaldia Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza aurrean, Donostiako Gipuzkoa plazan.
- Antolatzailea: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.

### Izena-emateko aukera irekita:

- **Maiatzak 27, ostirala**  
-17:00-19:00 Maiatzaren 29ko giza-katerako izen emate mahaia Zubietako plazan.  
-19:00etan hasita, maiatzaren 29ko giza-katerako izen ematea Usurbilgo Sutegi ondoko mahaian.  
-NOAUA!ko egoitzan, bulego orduetan.
- **Maiatzak 28, larunbata**  
12:30etik aurrera, maiatzaren 29ko giza-katerako izen ematea Usurbilgo Sutegi ondoko mahaian.
- **noiznahi:** erraustuez.org web gunean.

### Datozenak

#### Bokashi tailerra

Larunbat honetan, goizeko 11:00etan Usurbilgo Gaztetxean. "Bertan errautsa, ximorra, harri hautsa, hezur hautsa, lurra, orbela... dituen ongarri fermentatu bat egiten ikasiko dugu. Lorezaintzan, gure baratzen eta lurretan erabili ahal izango dugu. Baten batek ongarri hau etxera eraman nahi izanez gero jarri harremanetan gurekin, 608 566 683".

#### Muxurbil-en emanaldia

Larunbat honetan, eguerdiko 12:00etatik aurrera, Ixabel Agirresarobek eta Hodei Unzuetak zuzenduriko taldea Sutegiko auditorioan arituko da. Ikasturte honetan landutakoa ezagutzeko aukera aproposa izango dugu. Bertaratzen direnek, azken al-dian prestatzen aritu diren antzezlanaz gozatzeko aukera izango dute.

#### Santueneko Jai

##### Batzordearen bilera

Maiatzaren 31n arratsaldeko 19:30ean Santueneko frontoi atzeko lokalean. "Antolaketa lanetan parte hartu nahi duenak edo proposamenak egin nahi dituenak ager dadila bilerara", luzatu dute gonbita.

**Uraitz, s.l.**  
Igeltzeritza  
Orokorra

693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net

**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

**ELORZA**

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Ekitaldiak

Irakurle aurreratua

Zozketak

Denda

berriarekin zuzenean

berria berri

Orain

**berria** *laguna*

gehiago da

> [berria.eus/berrialaguna](http://berria.eus/berrialaguna)

BERRIAlaguna bazara

*Sortu kontua*

eta gozatu abantailez!

[berria.eus/berrialaguna](http://berria.eus/berrialaguna)

Zure ekarpenari esker,  
aurrera goaz!

**berria**

mundua-euskarari-emana

# EDERTU ZAITEZ!

**Loli Lizarralde**  
ESTILISTA

PREZIO BAXUAK  
KALITATEZKO  
PRODUKTUEKIN eta  
PROFESIONALTASUN  
HANDIAREKIN

**KALIFORNIAR  
METXAK + ORRAZTU  
29€**

**L'ORÉAL  
PROFESSIONNEL**

ESTETIKAN TARIFA BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971

**Jwar**  
ESTETIKA

Zure azala  
Kalitate handiko  
produktuekin  
zaintzen dugu

**Natura Bissé**  
Barcelona  
DOUBLE ACTION HYDRO  
PROTECTIVE DAY CREAM

**ACONDA**

munalurra 2, Usurbil 943 571 680

**Ane**  
ILEAPAINDEGIA

*Artzabal*

**JUBILATUENTZAT  
AUKERA ONENA**

artzabal baserria 626603600

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

**MAIATZEKO ESKAINTZA**

**GARBIKETA ETA HIDRATAZIOA:**  
LEHEN-30€— ORAIN 25€

**ADINAREN AURKAKO  
TRATAMENDU BEREZIA:**  
LEHEN-40€ ORAIN 35€

**AURPEGIKO GARBIKETA: 20€**

**424 SAKONEKO NUTRIZIO  
ZELULARRA:**  
LEHEN-50€ ORAIN 40€

**INTZA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan irekial  
Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41

**Elexpés**  
ileapaindegia

Betileen tintaketa  
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta etzandako  
Solariuma

Muna Lurra 12. © 943 370 462

**Berria!**

**GOLDWELL  
ELUMEN**

*ileapaindegia*

**mistoa**

BIOLOGO BATEK  
MIKROSKOPIOZ  
EGINDAKO BURU-AZAL  
ETA ILEAREN AZTERKETA

**KONTSULTA DOANI!**

9.00etatik 19.00etara zabalik  
Zubiaurrenea 4 • 943 361 951